PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Beriaingo Memoriaren Parkea

Beriaingo Memoriaren Parkea
Iruñerrian dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Iruñerria non dagoen ikus dezakezu.

Frankistek preso asko
Iruñeako kartzeletatik Beriainera eraman zituzten
bertan hil eta lurperatzeko.

Potasasko meategia irekitzeko
egin ziren obrak eta gero
zailagoa izan zen
Beriainen zer gertatu zen jakitea.

Orain arte bertan hil zituzten
19 pertsonen gorpuzkiak identifikatu dituzte.
Baina uste dute oraindik
aurkitu ez diren pertsonen gorpuzki asko daudela.

2021. urtean Beriaingo Udalak
eta Nafarroako Gobernuak
Beriaingo Memoriaren Parkea inauguratu zuten.
Parke hau bertan hil zituzten
pertsonen oroigarria da.

Parkean Ramón Llamasek egindako
Cielo de Tierra izeneko eskultura bat dago
eta bertan hil zituzten frankismoaren biktimei
omenaldi bat da.
Pertsona hauek herri hauetakoak ziren:

- Cabanillas.
- Oibar.
- Genevilla.
- Milagro.
- Torres del Río.
- Iruñea

Hemen Beriaingo Memoriaren Parkean egindako
omenaldi baten argazkiak ikus ditzakezu:



